



BATXILER-TITULUA LORTZEARI ETA UNIBERTSITATE-IKASKETETAN SARTZEKO EBALUAZIO PROBARI BURUZKO INFORMAZIOA. 2016-2017 IKASTURTEA.

Hezkuntza-komunitatean galdera ugari sortu direnez gero, honako informazio hau eskaintzen dugu behin-behinean.

1.- BATXILER TITULUA

1. Batxiler-titulua lortzeko, beharrezkoa izango da ebaluazio positiboa lortu izana titulu hori eskuratzeko gutxienez nahitaezkoak diren ikasitako ikasgai guztietan. Batxiler-tituluak eskubidea emango du unibertsitate-ikaskuntzetan sartzeko –aurrez sarrera-probak gaindituz gero–, goi-mailako arte-ikaskuntzetan, goi-mailako lanbide-heziketan, goi-mailako arte plastikoen eta diseinuaren ikaskuntzetan eta goi-mailako kirol-ikaskuntzetan.

2. Lanbide-heziketako teknikari-titulua edo goi-mailako teknikari-titulua duten ikasleek eta musikako zein dantzako irakaskuntza profesionalen teknikari-titulua duten ikasleek, batxiler-titulua lortzeko, ikasgai komunak ikasi eta gainditu beharko dituzte (Euskara eta Literatura I eta II, Gaztelania eta Literatura I eta II, Atzerriko Lehen Hizkuntza I eta II –Alemana, Frantsesa, Ingelesa, Italiara edo Portugesa–, Filosofia eta Espainiako Historia), bai eta aukeratu duten modalitateko nahitaezko ikasgaiak (Matematika I eta II; Latina I eta II edo Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika I eta II; Artearen Oinarriak I eta II).

3. 2016-2017 ikasturtean eskuratzen den batxiler-tituluan agertuko den azken kalifikazioa honela kalkulatu da: etapan ikasitako ikasgai bakoitzean lortu den kalifikazio numerikoen batezbesteko aritmetikoa, 0tik 10erainoko eskalan adierazia, bi dezimalekin eta ehuneneko gertuenera biribilduta. Kalkulu horren ondorioetarako, kontuan hartuko dira soilik ikasleak gutxienez ikasi behar dituen ikasgaiak. Baliozkotutako ikasgaiak edo ikasgai salbuetsiak ez dira aintzat hartuko azken kalifikazioa kalkulatzeko.

2.- UNIBERTSITATE-IKASKETETAN SARTZEKO EBALUAZIO PROBA

1. Unibertsitatean –dela publikoa, dela pribatua– sartzeko, graduko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ikasteko, sarbide-proba gainditzea eskatuko da oro har.

2. Ikasle baten sarbide-proba gainditutzat hartzeko, batxiler-tituluko azken notaren batezbestekoaren ehuneko 60aren eta sarbide-probako fase orokorreko notaren ehuneko 40aren batezbesteko haztatuak 5 edo gehiago izan beharko du, baldin eta fase orokorrean gutxienez 4 puntu lortu badu.



3. Lehia bidezko konkurrentzia-prozedura gertatzen bada graduko unibertsitate-irakaskuntza ofizialetan onartua izateko, fase espezifikoako ikasgai bakoitzean lortutako nota kontuan hartu ahal izango da, kasuan kasuko unibertsitateak erabakitzen duen eran.

4. Honelakoa izango da unibertsitate-ikasketetan sartzeko ebaluazio proba:

a) Proba Unibertsitatean sartzeko ondorioetarako hartuko da kontuan soilik; batxiler-titulua lortzeko ez da beharrezkoa.

b) Probak bi fase izango ditu: orokorra eta espezifikoa. Bi faseetako ariketak bat etorriko dira batxilergoko bigarren mailako irakasgaien curriculumarekin (127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa).

c) Probaren fase orokorrak bost ariketa izango ditu, eta horietako bakoitzari 0 eta 10 puntu bitarteko kalifikazioa emango zaio. Fase orokor honetako kalifikazioa ariketa guztien kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa izango da, 0 eta 10 puntu bitarteko zenbaki batez adierazia, gertueneko milarenera biribildua eta, distantziakidetasuna balego, milaren handienera.

Fase orokorreko ariketak hauek dira:

- Euskara eta Literatura II, Gaztelania eta Literatura II, Atzerriko Lehen Hizkuntza II (Alemana, Frantsesa, Ingelesa, Italiara edo Portugesa) eta Espainiako Historia.

Horietaz gainera, fase honetan ikasleak honako ikasgaietako azterketak egin beharko ditu, ikasi duen modalitate eta bidearen arabera:

- Zientziak: Matematika II
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak (Humanitateen Bidea): Latina II
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak (Gizarte Zientzien Bidea): Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II
- Arteak: Artearen Oinarriak II

d) Probaren fase espezifikoan, borondatezkoa baita, onarpen-nota hobetu nahi duten ikasleek hiru ikasgaitako azterketak egin ahal izango dituzte gehienez, fase orokorrean aztergai izan ez dituen modalitateko ikasgaien eta Batxilergoko bigarren mailako honako ikasgai hauen artetik aukeratuak:

Biologia, Marrazketa Teknikoa II, Geologia, Fisika, Kimika, Enpresaren Ekonomia, Grekoa II, Artearen Historia, Filosofiaren Historia, Geografia, Ikus-entzunezkoen Kultura II, Arte Eszenikoak, Diseinua.



Fase espezifikoko ikasgaiak 0 eta 10 puntu bitarteko kalifikazioa izango dute, eta horietako bakoitza gainditzeko kalifikazioak 5 edo handiagoa izan beharko du.

e) Ariketa bakoitzak bi aukera emango ditu, eta ikasleak horietako bat aukeratu beharko du.

f) Probak hiru egun iraungo du, bai ohiko deialdian, 2017ko ekainaren 7, 8 eta 9an egingo dena, bai ohiz kanpokoan, 2017ko uztailaren 5, 6 eta 7an egingo dena.

5. Batxiler-titulua duten ikasleak aurkeztu ahalko dira probara, bai eta lanbide-heziketako goi-mailako teknikari-titulua dutenak ere, eta arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikari-titulua, kiroleko goi-mailako teknikari-titulua edo horiekin homologatuta dauden edo horien baliokide deklaratu diren beste titulu, diploma edo ikasketak dituztenak. Titulu horiek dituztenak fase espezifikora aurkeztu ahal izango dira, graduako unibertsitate-irakaskuntza ofizialetan sartzeko onarpen-nota hobetu nahi badute.

6. Hezkuntza Sailak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean –zeinak lehenagoko funtzio eta erantzukizun berberei eutsiko baitie Unibertsitatean sartzeko probei dagokienez–, 2011ko apirilaren 19ko 79/2011 Dekretua aldatuko du (Euskal Autonomia Erkidegoan graduako unibertsitate-ikasketa ofizialetara sartzeko arauak ezartzeko Dekretua), eta beharrekoak diren antolakuntzako neurriak hartuko ditu unibertsitate-ikasketetan sartzeko sarbide proba gauzatzeko, zeina, gaindituz gero, baliagarria izango baita Espainiako unibertsitateetako gradu-ikasketak egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 19a.

Arantza Aurrekoetxea Bilbao

Hezkuntza sailburuordea